

ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

135n. Zenbakia Azilla

1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



MUNGIA

- BER-JAIOTZA TANKERAKO
ATE EDERRA
- KRISTOBAL DEUNA KALEKO
SARRERA
- ITURRI BARRIA, BARATZA,
ARGIAK...

EUSKALERRIA

ABERRIA EZAGUTZEN

Benetan ez nekian gure lurra ain polita zanik eta egia esateko ez dot uste Euskalerrria baño lur politagorik izango danik.

Dana aurkitu daiteke gure aberrian: Itxaso, ibaiak, erreka, zingirak, baso, mendi, ibarrak, landa, zelaiak, ugarte,... bakea, jaia... eta gizakiak bear dauan guztia.

Aspalditik, Iparraldera joateko gogoz nintzala eta, askenez gizona ta biok joan giñan.

Ikusgarria benetan! Ango etxegintza berezia eta ederra da.

Niri beti, Iparraldeko euskaldunak otz eta ixilak zirala esaten eusten; ori guzurra!

Sare erritik ibiltzen, jaialdi bateren iragarki bat ikusi genduan kalean, Prantzezez egoan ezkerro andra bati itandu neutson eta eguna, lekua eta ordua atsegiñez azaldu eustazan.

Ango inguruetatik ibili giñan, ikuspegiak gozatuz, eta jai-aldi egunean barrero Sarera joan giñan. Elizan zan jaialdia. Bai polita zala eleizea. Geroago, iparraldeko eleiz guztiak oso ezberdiñak eta oso politak dirala ikusi neban.

Euskaldun barri nazan ezkerro, zailtasunez uler-

tuko neukela pentsatu neban baño zorionez ez zan orrela.

Abeslari guztiak Euskalerrriaren aldeko abestiak abestu ebezan izkuntza eta euskaltasuna goratzen.

Oso arro sentitu nintzan Euskera ikasteaz eta ia dana ulertzeaz.

Abestiaz gañera, jaialdian parte artu eban kontalari bat Koldo Amestoi zan eta benetan arritu ninduan. Bai ondo egin ebala! Edestu ebazan ipuiñak, fabulak-lakoak ziran moraleja ta guzti.

Izkereagaitik galtzen nebazan itzak, nire ondoan egoan andra zaar batek astiro azaltzen eustazan eta Enkarterrikoa izan arren Euskeraz egiten nebanaz arritu eta arrotu zan, eurak, Bilbon, euskeraz ez dala egiten uste izaten dabe eta ori orrela ez dala jakitean poztu egin ziran.

Jaialdia amaitu zanerako, gabeko ordu bata ta erdia egin zan eta txaloaren txaloaz eskuak sutan gucukazan, baño biotza suturik, Dantzarinearantz abiatu giñan an lo egiteko.

Ain berandu izatearren, ezin genduan iñun afaldu baño ez jakun axola, gure erria eta izkuntzaganako maitasunez beterik gengoalata.

PALMI

TONTORRA

Usain orixka batek laztantzen dau tontorra bai eta gudari zaarraren udazkena. Begi argiz dakus goizbarri onen altxorra, min joanen ordezko pozaren zoramena.

Aizeñoak dakartson kilikili mozkorra dabilko pentsamentu zaarren asperana lurrundu-gura ta betiko daiten idorra antxinako bere egun galduen oroimena.

Bizkargi tontorra, ainbat egun erreetan milla burdin lizunek argituko aldara t'odol gazteen uyol gorriek santutua.

Gaur, eder goiza emen, eguzki urretan; baño, gudari zaarrak min bat arimara: Bere lagun illaren poz berde zulotua.

AKARAK

Zure tristezi ortan maite zaitut, ama, nik ta zure odolena samina muxuka gabe ezin naiz egon, ain gorri, sortu zinanateik, pekatu aundiren baten ume doakabe.

Emen nauzu Euskadi, ni zauriz zauriturik zure pekatuaren zigor guztien jabe, Euskaldun jaio izatea baita obenik gordinena, an eta emen, zeru eta be.

Ogera doan gau urdina bezain apala zakusdaz ilundura orren ixil mutuan gordetzen biotz zaar tximurreko ikarak.

Neu izanen beti alboan, seme leiala, eta zure matraileko malko zimelduan sortazoren deusdaz barriz ere akarak.

A. BIDAGUREN

AUTESKUNDEA BARRIRO

EKIÑALDI BARRIA

Noizean bein, nai genduken baiño sarriago, izaten dogu erri-agintaritzaren giro onetan autarkien kutzara urreratu-bearra eta orain be eldu jaku orretarako dan zabalkunde-aldia ta ekiñaldia.

Gai oneri buruz, illerokoa dan gure aldizkari onek ezin esan leike barri aundirik, illerokoaren epea bete orduko barriak zar egiten diralako.

Oraindiño zabalkunde-aldian gagoz au idazten dogu-nean eta aldizkaria irakurleen eskuetara eltzen danerako, ondorena jakin eta aldunak aukeratuta izango dira.

Dana dala, gaur aurrean ikusten dogun giroa nabarmena da, nabarmena eta sarritan barregarria be bai. Or ikusten doguz gure politikariak zarataka ta oiuka, alkar-rari irainka eta bakoitxarena onena dala agertzen.

Zori txarrez, ezin ukatu, errigintzarako joko onek alkartu-bearrean banatu egiten gaituala, baiña gaurkoz ez ei dago era obarik erriak jaurtzeko eta era oneri jarraitu bearko dautsagu.

GARRANTZIA

Lenengo ikustaldi baten arazo au ez dala garrantzizkoa uste izan daikegu, or diarduen gizonak eta emakumeak seriotasun aundi barik berba egiten dabelako, baiña arazoa garrantzitsua da.

Guk ba-daukagu geure Euzkadi onetan geure Lege-Bazkuna edo parlamentua, baiña gutzat garrantzi aundia dauken arazo asko Madrid'eko Lege-Bazkunan erabagiten dira eta orregaitik ardura aundiaz artu bear dogu ekintza au: Gure errigintza egosten dan lekuan antxe euki bear dogu geure lekua.

Gaiñera errien guraria ta izakerea agertzeko oso egokia izaten da auteskundea, alegindu gaitzezan ba,

gurari ori dan lakoa agertzen eta geu non gagozan eta zelakoak garan jakiten.

ALDERDIEN ALKAR-LANA

Alderdi guztiak, eta oraingo onetan alderdi euskaldunak, alegin aundia egin bear leukee euren alderdia baiño lenago Aberria kontuan artzeko, edo, argiago esateko, alderdi abertzaleak alkartuta ikusi gura gendukez. Or daukagu izukeriaren arazo larria eta konpontzeko gatxa, baiña beste alderdiak alkartetik asita, eta zelan edo alan asi dirala ikusten dogu, abertzale guztiak alkartzera jo bear da.

Orrek ez dau esan nai guztiak eritxi batekoak izango dirala, baiña bai, esan dogun lez, elburu nagusia aberria dala.

ITXAROPENIK?

Alderdiak alkartze-giroan lortu daben aurrerapena, benetan pozgarria ta itxarpentsua da, baiña gure erriaren bakea lortzeko or daukagu izukeriaren arazo latza. Erria bake-bidetik askatasunean aurrera eroan nai genduke, baiña eragozpen aundia aurkitzen dogu bakerako bidean.

Gure ZER'en zenbaki onetan agertzen dogu ainbeste zarata atera dauan Gotzaiñen agiria. Ez dago zalantzarik. Argi agertzen dabe zauria non dagoan eta osakaia be eskintzen dabe, naizta ez izan guztientzat pozgarria. Erriaren askatasuna lortzeko artzen diran bideak be bide zuzenak izan bear dabe.

Beste alde betetik, agertzen da agiri orretan espetxeratuak gizalegez eta egokiro artu-bearra be, baiña gai orreri oso eragin gitxi egin dautsoe albiste-bideak, tamalez.

ARAZOAK

AÑDREA ELEIZAN

PAULO DEUNA

Zenbat bidar, batez be aspaldiko urteetan, andren eta gizonen eskubideen eta zeregiñen gaia aztertu eta erabili dan! Eta arlo onetan asko aitatzen da Paulo deunaren irakatsia eta bere idazkietan agertzen dan korapillo askatu-eziña.

Egia da Paulo Deunak bere aldiko eritxiak eukazala, baiña ukatu-eziña, baita, bere aldiko jakitunak eta erri-gizonak baiña asko aurreratuagoa dala.

Kristo'ren aurrean andrea ta gizona bardiñak dirala diño, Juda'tarra ta Grezia'tarra bardiñak diran lez, eta gauza aundi lez agertzen dau Kristo andra bategandik jaioa izatea.

Eta ezkontza-arloan bertan be seksu-artu-emonetan biak eskubide bardiñeko eta alkarrari men eginbearreko agertzen dauz.

Geroago azalduko dogu menpeko izate orregaz zer agertzen dauan edo esan nai dauan.

Antzera jazoten da joputza edo morroitzari buruz Filemon'eri egindako eskutitzean diñoanagaz: San Paulo ez da morroitzaren aldelaria, eta bat-batean ezin dau kendu oitura ori, baiña Filemon'eri Onesimo'ren alde diñotsona oiñarri ona da arazo orreri urtenbidea billatzeko, aldien joanean jazo zan lez.

Antzera jazoten da andrazkoen eskubideai buruz be.

Efesiotarrai egindako epistoleak ba-dauko bere gaiztasuna ulertzeko.

Gizonaren menpean egoteko eskaria egiten da argi-argi.

Aldi aretako giroa zan.

Baiña jarraian esaten dau senarrak emaztea maitatu dagiala, Kristo'k 'Eleizea maite dauan lez.

AITA ALA AMA

Jakiña da, Jaungoikoari Aita esaten dautsagula. Orre-lan Kristo'k irakatsitako otoitzean be.

Eta aldi aretan ez egoan orretan zalantzarik, Aita ala ama dan itaundu ezkerro, guztiak esango eben Aita zala.

Aldian aldikoa esan dogunez.

Liburu Santuaren beste toki baten beste au be esaten da: "Ama batek bere besoetan dauan umea aitzu ezin dauan lez, nik be ez zatu et aitzuko". Berba orreitan Jaungoikoaren biotza ama-biotza dala gogoratzen da.

Lenengo Jon Paul Aita Santuak Jaungoikoa ama dala be esan eban, baiña esaldi orrek okerreko gauzarik agertu ez arren, ez jakon zabalkunde aundirik egin.

Dana dala, Jaungoikoa ama dala esateak ba-dauka bere esan-naia, aita dala esateak be bai berea, azken baten aita eta amak baiña be era egokiagoan maite gaitualako eta bere laguntza zerutarra emoten dauskulako.

GAURKO ELEIZAN

Beste arazo aztergarri bat Eleizearen gaurko jokabidea da, batez be andrazkoak abade izaterik ez onartzearen arazoa.

Inglatera'ko eleiza aldenduan andrazkoak gotzain izatera be eldu leitekezala erabagi dabe, naizta euren artean be eztabaida aundiak izan ori onartzeko eta gure Eleizeagaz alkartzera eltzeko be ortik arazo barriak sortu.

Eleiz jakitunak ba-diño ez dala ikusten teoloji-aldetik orretarako eragozpenik, baiña gaurkoz urrin gagozela dirudi erabagi ori antzera eltzeko.

Egia da ebanjelioan ez dala agertzen andrazkorik apostoluen maillan, baiña iñon ez da agertzen mailla ori ez dala andrazkoentzat diñoan Kristo'ren berbarik.

Eta jokabidea ezin artu lei beti ezaugarri lez.

Ez dago apostolu baltzik be, baiña baltzak gai dira orretarako.

Bardin andrazkoen arazoan, aldi aretan gizarte-arazoakaitik ez dira artzen orretarako, baiña iñoz ezin artu al izango dirala agertu barik.

Eta Eleizearen jokabideari begiratu ezkerro, alkarte onetan laguntza edo serbitzua emoteko bide asko dagoz.

Laguntza bat da zuzendaritza eta ori gaurko gizon-zkoen eskuetan dago, baiña ez da aitzu bear Jesus'ek berak esan eban lez zuzendaritza ori otseintza dala eta izan bear daula.

Baiña beste laguntza asko eta garrantzi aundikoak dagoz Eleizan andrazkoak egin leikezanak, ebanjelioan bertan asi eta gaur arte.

Ebanjelioan andrazkoak agertzen dira Jesus'en Barria, Berbizkundearen barri Ona emoten lenengo lez.

Barri Ona zabaltzearen lana gaur arte beti egin dabe eta egin bear dabe andrazkoak Eleizan.

Kurutzearen oiñetan onartua izan zan andren laguntza, gizonakaz batera, eta gaurko Eleizan eta munduan be sarritan dago kurutzearen oiñetan egon-bearra eta asko dira gaiso-etxeetan eta zarren egoitzetan eta abar, andren laguntza biotz onez artzeko.

Ama izatea bera, eleiz-laguntza aundi bat da, eleiza txikia izan bear dan sendian eta ori andrazkoak bakarririk egin leikeen zeregiña da.

Eta ez aitzu ama izatea diñogunean ez dogula esan nai mundura ekartea beste barik, mundu onetan aurrera ateratea eta fedean ezitea be or sartzen dira.

Fedean ezitea guraso bien zeregiña da, baiña amak bere alde berezia dauka, berak izan ezik beste iñok bete ezin leikena.

Beste gauza asko gogoratu geinkez arlo onetan, baiña auxe bai ez dogula aitzu bear: Eleizan geroago ta garrantzi gitxiagokoa izango dala zuzendaritza eta onen-beste garrantzi izango dabela, edo geiago, laikoak eta batez be andrak egin leikezan lanak eta zeregiñak.

Andrazkoak euren zeregiña zeatz billatu eta beteten asten diranean, zalantza barik, Eleizeak udabarri bat izango dau, eta egun ori ez dagoala urrin esan daikegu.

ELEIZTAR BATEK

OLERTI EGUNA LARREAN

Azaroaren 26'an, Kristo Erregez

30'garren urteari jarraituz, iru sailletan eskatzen dira olerkiak:

—Lirika gaikoak, edozein neurri ta izkelkikoak.

—Poema bat, euskal edestiari dagokiona ba'da, oba.

—Bertso moltzo bat, gure dan neurritz eta gaiez.

Lana, bialdu ez dauanak, bial bei albait bizkorren.

Olerki jaia onan ospatuko dogu:

Goizeko 11,30'etan, meza abestua, itzaldiaz.

Ondoren, poesi-eskutitzen azalak edegi, sariak emon eta sarituak irakurri ostean, olerkiari buruzko alkar izketa.

Azkenez, bazkaria betiko lekuan.

AITA ONAINDIA

ELEIZEA

ELEIZEA

GOIRIA

ELEIZAREN IZATEA

Eleiza zer da? Mohler'ek darantzu egokitasunez eta garai onez: "Jaungoikoaren Semea, eten barik gizaeran gizonen artean agiri dana, beti-guztiko gaztetxe baten barrizatzen da; Kristo berberaren sekulako aragitzea." (Symbolik, 389.)

Sinismendun kristauen bazkun-alkarte da Eleiza Aita Santua buru dalarik. Sinismendunen bazkun-alkarte onek sinismen bera dau, sakramentu berak, eta buru bera. Buru onen menpeko dira danak. Jesukristok sortu eban bazkun-alkarte au urrengo atalean ikusiko danez.

Ba-zan Sinagoga judutarren artean Jesukristoren egunetan eta beste erri batzuetan be ba-ziran alako erlijio batzuk, baiña ez zan Eleizarik. Sortu eban Eleiza Pentekoste-egunean adierazi eban.

Judatarren erriak sortu eban Sinagoga ta judutarrentzat bakarrik; alan be-agindu illunak Jaungoikoaz eta erri-aldeko legeaz. Apaizak be ba-ebazan enda batean; lurreko ondasunak eskintzen ebazan; ez eukan sakramenturik, barruko santutasuna ezartzeko beintzat. Sinagoga onek Jesukristo mundura etorri arte bakarrik iraun bear eban.

Jesukristok mundu guztiarentzat sortu eban Eleiza, enda ta erri guztientzat. Sinismen agiria adirazten dau; sinismendunen salbarena ta santutasuna dauz elburu. Edonongo ta edozein senditan izan daiteke abadetzaia. Arimaren aldeko ondasunak bakarrik eskintzen dauz; egiazko sakramentuak daukoz, eta sakramentu onein bidez erazten dau santutasuna ta munduaren azkeneraio, gizaldien bukaeraiño iraun bear dau.

ZELAKOA DAN

Eleizaren elburua geroago ikusiko danez, grazizko maillakoa da, goitikoa; grazizko bidetik zear zuzendu gizona mundu onetan, gero betiko zoriona jadetsi dagian. Orregaitik Eleiza goitiko bazkun-alkarte da, grazizko maillakoa.

Goitiko bideak daukoz, bereak diranak goitiko elburura eroateko. Au olan-da Eleiza lurreko beste bazkun danen ganetik dago.

Bazkun guztiak lez bere burua dauko. Buru au Jesukristo da ta Jesukristo oraindik bizi da, ez da il. Jesukristo baiña ikusi-eziña da. Pedrori ta bere ondorengoai itzi dautse aginpidea.

Beraz Aita Santua bazkun-alkarte onen buru ta orregaitik sakramentuen bitartez barruko bizitza emoteko apaiz-almena dauko; baita salbamenari ta santutasunari dagokiona sinismendunei emoteko apaiz-almena be.

Gizon-emakume guztiak izan daitezke Eleizaren menpekoak, alan be bateoa artu dabenak bakarrik dira, bateoa baita Eleizan sartzeko atea.

BAZKUN OSOA

Eleiza bazkun osoa da. Bazkuna ez da osoa izango gizona zorian-tsu egiteko gauza ez ba'da; orobat beste baten menpean ba'dago.

UTSEZKOR

Eleiza utsezkor da; Eleiza sekula ez da ilko, betiro iraungo dau, Jesukristo bere sortzailleak agindu ebanez.

BAT

Eleiza bat da, alan be zati bitan banatzen da; alde batetik irakasleak; bestetik irakatsiak diranak. Lenengoak Aita Santua, Gotzaiñak eta apaizak dira; bigarrenak apaiz-zaillekoak ez diran sinismendunak.

AGIRIA

Kristoren Eleiza agiria da, au da, ikusten dana. Eleiza onetan gizonak zerurako eziten dira. Eleiza izenak ez dau esan gura otoitz-toki edo Jainko-etxe; bazkun-alkarte baiño.

Eleiza osoa, utsezkor eta bat ezeze agiria be ba-da.

Buru agiriak daukoz, ezaugarri agiriak, erlijioa be ikusteko bezalakoa da. Katolikoa da, sinismendunak, apaiz katolikoak non bizi an, dago Eleiza.

Eleiza katolikoa zemko Erreiño, Jainkoaren Erreiño deritxo sarritan.

Kristau sinismendun guztien bazkun-alkarte ba ba-da. Eleiza erreiño baten antzekoa da; bazkun osoa dalako bakarrik ez, daukan xerarkiagatik be bai.

Eleizak bere agintariak daukoz: Aita Santua, Kardenalak, Gotzaiñak, apaizak, diakonoak, kristauak.

Gizonak zerurako azteko elburua daukalako deritxo zeruko Erceiño.

Eleiza Jainkoaren erri da.

Eleiza au mundu osoan zabaldua dago.

Kristau guztien bazkuna da.

Ardi-talde ta arditegi bategaz bardindu eban Kristok Eleiza. Artzaiñak solo-mendira zuzentzen dauz bere ardiak. Eleizak zerura zuzen zuzentzen dauz gizon-emakumeak euren buruen bitartez.

Solo bategaz be bardintzen dau. Soloak frutuak emoten dauz azia frutu bihurturik. Eleizak be ebenjelio-azia erein eta zabaltzen dau kristauen biotzetan eta azi onek grazi-frutuak emoten dauz, bere garaian.

Yeben aziagaz be bardintzen dau. Azi txiki au zugatz andi egiten da. Eleizak be asiera txikia izan eban; urteakaz baiña mundu osoan zabaldu da.

KATOLIKOA

Katolikoa be ba-deritxo Eleiza onek. Zergaitik? Munduko erri guztiak bere magalpean artu dauazalako.

Eleizak zerurako azten dauz gizonak eta orretarako iru zeregin bete bear dauz.

Lenengo irakatsi. Orretarako itzaldiak eta idazkiak biderik onenak

Eleizak itzaldien bidez irakasten dautsez kristauai legeak, aginduak, eginbearrak eta abar. Bigarren meza esan. Almen au Eguen Gurenez azken Aparian emon eutsen apostolui ta almen berau dauke ondorengoak, au da, apaizak.

Bardin pekatuak parkatzeko Berbizkunde Egunez apaltokian ager-tu jakenean.

Bateatzeko emon eutsen zerura igon zanean.

Irugarrena zuzentzeko: au da, lotzeko ta askatzeko; legeak ipiñi ta ezarri ta kentzeko.

Zeregin ederra Kristoren Eleizarena.

ELEIZEA SORTZEA

GOIRIA

Jesukristok erlijño barria sortu eban eta erlijño barri oni legeak eta agindu barriak ezarri. Zelan? Ze bide erabili eban orretarako?

Jesukristo'k gizonak eta erriak batu gura izan ebazan alkar eta Beragaz. Orobat bere Aitagaz. Orretarako sortu eban bazkun-alkarte barri au. Artzain batzuk, jarri ebazan zaindu ta zuzentzeko.

Eurak irakatsiko eban erlijño barri au, eurak banandu sakramentuak. Amabi apostolu aukeratu ebazan Pedro danen buru egiñaz.

Mundu-zear joan eitezela agindu eutsen. Beraz Jesukristok sortu eban egiz Eleiza? Bai, Jesukristok sortu eban Eleiza, bazkun-alkarte-era emonaz. Argitu ete leiteke au? Errez da Jesukristok Eleiza sortu ebala agertzea, egiztutzea.

Munduak ezagutu dauan gizonik andien eta jakitunena izan da Jesukristo. Ganera Jainko zala diñosku sinismenak. Munduak ezagutzen ez eban zerbait ekarri eban gizon egitean erlijño barri bat bere lege ta agindu barriekin.

Erlijño au ez eban ekarri bere egunetarako bakarrik mundua betiko irauñ egian baiño. Erlijño onek aurrera egian osterera, bazkun bat, alkarte bat sortu bear eban bere buru ta legeakin. Eleiza da bazkun-alkarte au. Ikusi daigun.

Agerbide batzuk ekarri ta gogora daiguzan.

ARGIBIDEAK

1'go: Ebanjelioak dakarzan Jesukristoren itz-berbak.

2'grren: Emeretzi gizaldietako edestia.

3'grren: Jesukristok sortutako bazkun-alkarte onen iraupena.

JESUKRISTOREN ITZAK

Eleiza barri bat sortuko ebala agindu eban Jesukristok; baiña ez Sinagogaren antzekoa; ezbarðiña izango zan. Ona Pedrori esandako itzak: "Aitz zara zu ta aitz onen ganean eraiki ta egingo dot neure Eleiza ta inpernuko indarrak ez dabe menperatuko".

Eleiza au artalde, Jainkoaren erreñu ta sendi izango da Kristoren asmoetan. Bere jarrai ebilzan amabi aukeratu ebazan Eleiza au mundu osoan sabaldu egien. Gotzain egin ebazan amabiak. Erlijño-gaietan zuzendari ta maxu izango ziran errian. Beste irurogei ta amabi aukeratu ebazan apostolui lagundu egietsen. Oneik Apostoluan menpean eta zainpean egongo ziran.

Zerura joan aurretik onela itz egin eutsen ikasleai: "Nire Aitak bialdu nauan lez bialtzen zaituet Nik zuok. Almen guztia emon jat zeru-lurretan. Zoaze, beraz, erri guztiai irakatsi egiezue Aitaren e.a Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz eta agindu dautzuedan guztia betetzen irakatsiz. Ara: Neu nago zuek az egun guztietan aldien amairaiño." (Mat. 28,18-20).

Eta beste alde baten diñotse: "Zoaze lurbira oso-barna ta izaki guztiei Barri Ona iragarriezue. Sinistu ta bateoa artu dagiana salbatuko da; sinistu ez dagiana osterera gaiztetsiko da (Mark. XLV).

EDESTIA

Pentekoste Egunean Apostoluek Jesukristo iragarri eban. Iru

milla judutarrak ontzat artu eban euren itza ta bost millak urrengo egunean.

Kristauak geituz ioiazan eguneru. Apostoluek be mundu-zear banandu ziran ordezkariak itxirik errietan.

Kristok sortutako Eleiza barria indartsu agertu zan lenengo gizaldietan eta aldiak joanaz gitxitu bearrean geitu egin zan.

Bazkun-alkarte zerutar au munduko bazter guztietara eldu zan eta iñozkorik indartsuen aurkitzen da gaur.

Bere arerioak sarri iragarri izan dabe bere ondapena, bere eriotza, alperrik; Jesukristo sortzaillea dago bere alde.

ELEIZAREN IRAUPENA

Eleiza bizi dala ezin ukatu.

Eta Eleizaren iraupen onek argi erakusten dau Jesukristo izan zela sortu ebana.

JESUKRISTO'K SINAGOGA IZTEN DAU

Jesukristok bere Eleiza sortzeko Sinagogaren aurka egin bear izan eban.

Sinagoga zan ebreotarren Eleiza ta Jesukristok aren bitartez erein gura izan eban bere erreñua, bere erlejiño barria, baiña ebanjelioak diñoanez bereak, bere errietarrak ezetsi egin eban; orduan bere Eleiza sortzea erabagi eban.

Jesukristok ez eban sortu ta irasi bere Eleiza asieran, azken aldiñon baiño.

Filipoko Zesarearuntz ioian bere apostoluek inguratzen ebela. Jesu geratu egin zan. Minduta eukan bere biotza bere errietarrak ezetsi ebela.

Bere ikasleen iritxia jakin gura eban eta ba-diñotse: "Zer diño Nitaz? Zer diño jendeak Jainko-Semeaz? Nor dala diño? Simon Pedrok danen izenean beingo baten ba-diñotso: Zu Kristo zara, Jainko-Semea.

Maiteki begiraturik ba-diñotso: Zorionsua zu Simon aurreantzean Zefas-Aitza izango zara ta aitz au oiñarritzat artuta neure Eleiza irakiko dot."

Orduantxe sortu eban Kristok bere Eleiza; aurrerantzean ez dau izango ar-emonik Sinagogagaz.

Kristo laster aldunduko zan mundu onetatik; bere Aitaren etxera joan bearra eban eta Eleizak aurrera irauñ egian apostoluen eskuetan izten dauz bere almen guztiak.

Pedro egin dau danen buru ta bere erlijñoa mundu osoan zabaldu zeitean ba-diñotse bere apostolui: "Nire Aitak bialdu ninduan lez bialtzen zaituet Nik. Jarraitu egizue ba nire lana. Iragarri nire erlijñoa, nire ebanjelioa mundu zabalean. Irakatsi; sinisten dauana salbatuko da, ez dauana barriz betiko galduko da. Bateatu jendea... pekatuak parkatu... zuek askatzen dozuena, zeruan be azkatua izango da, ta lotzen dozuena lotua. Neu izango zuekin".

Kristoren Eleiza agertu da gizonak zeruratzeko.

Ta gu Eleiza orren seme-alabak gara.

ARDURAZKO ERABAGIA

auteskunde orokorra dala-ta, Bilbo, Donostia ta Gasteiz'ko Gotzaiñen oarra

Aste batzuk barru, Laterri España'tarraren Parlamenturako ta Senadurako auteskunde Orokorrean kideko izateko deia artuko dogu. Dei orrek aukerea eskiñiko dasku, guztiontzat arduragarci diran erri-aurreko arazoetan urtenbideak billatzeko ardura aundia bear dabenak aukeratzeko.

1. GARRANTZIDUN JAZOKIZUNA

Politikea ez da dana errien bizitzan. Baiña bai gure gizarte-bizitzan eragin aundiko gauzea. Politikearen pentzuan garrantzi aundiko balioak dagoz. Politikariaren ekintzetatik datoz personen taldeen eta errien eskubideak zaintzea eta eskubide orreik aurrera ateratea. Politikearen esku dago, baita, bear-izanik aundiena dauken giza-maillakaz alkar-laguntzalana egitea. Orrexeri lotuta dagoz, egon be, erakundeak aurrera-bidean ondo jokatzea, erri-ondasunak erabiltean bear dan zintzotasuna, eta, azken baten, almena erabiltean bear dan zuzentasuna.

Orregaitik, erri-giroko alkar-teak zer-galdu aundia dauka bere ordezkariak aukeratzearen ekintza onetan. Auteskundeak erritar guztiai eskatzen dautsez egoera ta jokabide arduratuak.

AUTESKUNDE OROKORRA TA GURE JABETZADUN ALKARTEA

Ba-dagoz Euskalerrian batzuk, España'ko Parlamentua ta Senadua osotzeko egiten dan autaketak eurakaz ez daukela zer-ikusirik esaten dabenak, baiña, izatez, Laterriaren politika jokoak, onerako naiz txarrerako, bere baldintzak ezarten dauz gure gizarte-bizitzeari: Madrid'en egiten edo ezarten diran legeak euren ikutua dauke Euskaldunen alkar-tean. Ardatzeko Gobernua da, gaiñera, Buru jabetzaren Araudia ulertzeko, betetea eta aurrera aterateko orduan, alboratu-eziña dan alkar-izketa-laguna. Ez da ba garrantzi-bakoa erritar euskaldunentzat Laterriaren Bazkun orreitan ordezkari diranak, batzuk naiz beste batzuk izatea. Autarkidun bakoitxak aukerea dauka, bere ustez geien oneratzekoa dan Laterriaren eta Jabetzadun Alkar-tearen arteko artu-emonaren eredurik egokienagaz legeak egingo dabezenak aukeratzeko.

3. ASKATASUNA TA ARDURA-ARTZEA

Auteskundearen garrantzi orreri begira, arduratua dan kontzientziak itaun bi oneik aurkitzen dauz bere aurrean beingo baten: Autarkia emon ala ez emon? eta, baietza izan ezkerro, nori emon?

Iñok ezin leioe erantzuna emon itaun onei geure izenean edo orde. Erabagi askea ta arduratua eskatzen dabe, gure kontzientziari ikututen dautson erantzuna.

Gure askatasunak kanpotik indarkeria egiten dautsoen eragille batzuk alboratu bear dauz. Olakoak izan leitekez, esaterako, auteskundeetako mezu engañudunak, iraiñez beteriko ekiñaldiak, besteen gurariak eragindako sakakadak, edo erri-

-aurreko albiste-bideak alderdikieriz erabilteak. Autarkia emotea batzuntzat izan leiteke askatasunezko eginkizun adoretzuz bat, gure alkar-tean diran alkar ulertu-eziñeko giro batzutan.

Baiña arduradun askatasuna be izan leiteke barru-barrutik utsitua, edo azalez biziteagaitik, edo politikako arazoai oztasunaz begiratzeagaitik edo nagikeriagaitik. Olako jokabideak ez dauko iñondik onartzekoa dan jokabide baten zuritze-biderik.

4. AUTARKIAREN BIDEZ KIDETAKO EGINKORRA IZAN

Autarkidunen banakako askatasuna larkeriz laburtu leiken eragille oneilez batera, gure artean sarritan ikusten doguz, autarkia ez emotera errezegei bultzatzen gaituen eritxiak eta jokabideak be.

Askorentzat alperreko gauzea da aukeratzeko on bat egiteko alegintzea, "guztiak diralako bardiñak" naizta berba ederrak emon eta egitarau ederrak aurkeztu auteskunderako zabal-kundea egiten dabenean, eta politikako zeregiña beteteak berak arlo orretako "lanbidedun" biurtzen dauz eta euren jokabide zuzena laburra izaten da, dauken ardura-lekuari izaten dauzsee loturea barriz aundia.

Guk ez doguz ontzak artzen olako pentsabideak. Politikalari guztiak ez dira bardiñak, naizta samintasunaz ikusi sarritan, gizarteko ekintzaren arlo txalogarri eta garrantzitsu onetan, jokabide eta politika-giroan alan-olango asko dagozala. Gauzak orrelan dirala ikusteak indar barria emon bear dauku eta daukezan elburuak daukezelako, agertu dabezan egitarauak agertu dabezelako, eta personak eurak sinisgarriak eta eskuartearen zer darabilen dakienak diralako, gizarteari benetan laguntzeko ziurtasuna eskintzen dabenen aide erabagia artzeko.

Eta ez da onartzekoa, poza galtzearen eta aspertuta ego-tearen ondorena dan oztasuna be. Egia da gure gizartearen zati on baten barruan, politika-arlorako itxaropenak galduta dagozela. Gozo--galtze orren iturria, bear ba'da, auxe izango da: orain-arte politikan eta politikariengan uste larregi ipiñi dogula.

5. AUKERATZE ARDURATUA EGITEKO JOKABIDE-ERITXIAK

Aukeratzaillearen askatasuna ondo argituta dagoan kontzientzi bati dagokiona izan bear da. Olako kontzientzia osotzeko, bideratu bear diran arazoak eta, une onetan batez be, aurrera atera bear diran balioak ondo ezagutu bear dira.

Dana esateko gurarik guk euki ez arren, arazo ta balio orrean lauki bat eskintzen dautzuegu. Guk, aurretiaz, ondo dakigu politikako alderdi batek be ezin emon leikiola erantzun osoa arazo guzti onei eta ezin zaindu leikezela osooan balio guzti oneik. Bakoitxaren kontzientziak egin bear dauan gauzea da, jokabiderako eritxi oneik aurrean dirala, erabagi zur bat artzea.

a) Gure erriak bakea egitea gura dau eta bear dau. Benetako bakeak aldean daroa, eskari bizi-bizi lez, ETA'k egiten

dauzan gogorkerizko ilteak bein betiko kentzea eta, utsegitez be bai inoiz, ilteagaz jokoan dabilzan eta azkenean il egiten dabean bildur-sartzearen bideak alboratzea. Norberaren autarkiagaz olako ekintzak indartzea ezin joan leiteke batera jokabide zuzenarako kontzientziagaz eta gitxiago kontzientzi kristiñauagaz.

Erri onen benetako bakeak oiuka eskatzen dau, baita, garantzi aundiko baldintza lez, baituta eta espetxeratuta dagozan guztien giza-eskubide ikutu-eziñen itzaltasun argia. Erritarren autarkia eskatzen dauan edozein politika-jokabideak, argi ta garbi, ezelako makaltasun barik ziurtatu bear dau olako eskubideak.

b) Gure erriak bear dau, erakunde guztiak aurrera-bidean ibiltea eta erabagiak artzea, eragozpen barik, legezkoak diran erakundean askatasunaz jokatzin dabela. Aurrera. egite au, gizarteko osasunarentzat ain bearrezkoa dana, sarritan nastautau eta aldatuta geratzen da sustraikeri-zaleak eta gogorkerizkoak diran taldeen zemaiak eta indarkeriak dagozelako. Oraintsukoak dira, oraindiño, banakakoen baltzuai eta ondo ezagunak diran erri-aurreko eta norkiai ezarri jakezan indarkeriak. Olako jokabideak eragozpena dira gure erriaren bearrezko egokitasuna lortzeko eta demokrazi-bidean oiñarrituta erria jazo nai dabe nai gogoia kentzen dautse.

c) Gure erriak alegiña egiten dau, eragozpen aundiak eta askotarikoak izan arren, Laterri bat beragaz osotzen dabean erriari eta beste erriai begira, alkar-lana bide dala, bere kondaira ta jakintza-giroko nortasuna bideratzeko. Ez dau bakerik lortuko bideratze ori lortu arte. Erritarren autarkiaren indarra eskatzen dabean autagaiak, legez ezarrita eta kondairaz bizirik dagozan arauak eta berba emonak ondo ulertzeko eta zintzotasunaz ezarri eta aurrera aterateko berbea emon bear dabe eta berba ori bete.

d) Gure erriak gizarteko zuzentasunaren gaiñean oiñarritzen dan bakea bear dau. Erri batek erritarren zati on bat, ekonomi-giroko aurrerapenaren eta lan-leku baterako itxaropenaren eta bizitzarako sari-neurri egokiak itxarotearen bide-tik alboratuta geratzen danean, arazo astun ori arduraz artzen

daben zuzendariak eta arduradunak bear dauz. Olako zuzendariak ez dauz menperantzen "ekonomi-legeen burubideak" edo "aurrerapena ondasun nagusia" dala diñoan filosofiak. Larriuneak izan arren, ugaritasunean dagoana esaten jaken gizarteak, euren barruan benetako oiularri bat diran txirotasun-uneak kentzen edo gitxienez urritzen lan egiteko gogoia agertu bear dabe.

e) Giza-biziari asieratik azkenera-arte itzaltasuna izatea ziurtatu, sendiari indarra emon, eta irakaskintza-arloan askatasunaren alde jokatu, oneik be garrantzi aundiko gauzak dira eta merezi dabe aukeratzailleen arrete, autarkia emoteko orduan.

6. GIZONEN ZUZENTASUNA TA JAUNKOIKOAREN ERREIÑUA

Sinistadunontzat askatasuna, zuzentasuna ta alkar-laguntza, beti zatika baiño lortzen ez diranak, kondairan Jaungoikoaren Erreiñuaren osokiñak baiño ez dira. Orregaitik, otoiñtz egin eta Jaungoiko Aitari au esaten dautsogunean "etor bedi zure Erreiñua", ondasun oneik be eskatzen doguz "Gure Aita" esaten dogunean egiten dogun otoiñtzak eskatzen dauan lez bizi nai ba'dogu, personen, taldeen eta errien arazoakaz lotuta bizi bear dogu eta arazo orreik bideratzen alkar lana egin.

Mundu onetan bere Espirituaren bidez dagoan Jaungoikoaren Erreiñu bizia dan Jesukristo'ri eskatu dagoigun, auteskunde onek aurreratu gagizala egoera iraunkor batera, askatasuna eta ez indarkeria, zuzentasuna eta ez alboratzea, senidetasuna eta ez nor-geiagoo, bakea eta ez odola, bizia eta ez gogorkerizko eriotzak gure erriaren alkar-bizitzako gogoia diran egoerara.

Bilbo, Donostia eta Gasteiz 1989, urriak 7

- * Koldobika M., Bilboko Gotzaina
- * Jose Maria, Donostiako Gotzaiña
- * Jose Maria, Gasteizko Gotzaiña
- * Joan Maria, Bilboko Gotzain Laguntzailea

BIZKAI'KO EUSKEREAREN ASTEA (V)

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

NOZ?..... 1.989'ko azillaren 20'tik 24'ra.
NON?..... Bilbao'ko Eskolapioen Ikastetxean (Alda. de Rekalde, 19)
ORDUA? Arratsaldeko 8' retan.

GAIK ETA IZLARIAK

Azillaren 20'an:	Aurkezpena	ZUBIRI'tar IÑAKI'k
	Bertsogintza.....	MUNIATEGI'tar Abel'ek
Azillaren 21'ean:	Euzkerazko iztegiak	ONAINDIA'tar Santi'k
Azillaren 22'an:	Basetxeak Euskalerrian.....	ZUBIKARRAI'tar Augustin'ek
Azillaren 23'an:	Errotak non eta zelakoak.....	ASTU'tar Alberto'k
Azillaren 24'an:	Antxiñako euskaldunen egun aundiak	OLAZAR'tar Martin'ek.
	Agur eta urrengora arte	ZUBIRI'tar Iñaki'k.

BEGOÑA SARDUI EÑBEITA, OLERKARI (1939-1981)

UME ZALA

1939'ko azaroaren 24'an jaio zan Areatza-Muxika'n, goizeko 9'etan Itziar'ekin bikia zala. Urrengo egunean uguztu eben San Bizente parrokian. Bere gurasoak Rufino ta Bingene, Zubipuntakoak. Iru urte gurasoakaz egiñik, zazpigaz Jaunartzea egin arte Bilbo'n bizi izan zan izeko-osabakaz, an bizi zala, ikasten, Erronda'ko mojen ikasketxera ibilliaz.

Eskolan ibilli zan Areatza'n Petra Etxeandia andrea-gaz; eskolatik urtenaz Astepe'ko "Textil"-ean asi zan lanean, fabrika au itxi zan arte. Gero Eibar'era neska-me, eta Elgoibar'era, emen be Bar Gorbea'n neskame-tza egiñik.

Umetan ba-zituan Begoña'k griña ta zaletasun bere-ziak: pelota-zale zan, txirringulari trabe eta aurrekulari ez eskasa. Santikurutz jaietan bein Jenara Itxupekoak eta biok pelotan partidua jokatu ta irabazi egin eben. Onelaxe beste askotan be.

GAZTEA

Beste aldetik, Begoñak, amabost-amasei urte ebazala, zaletasun itzala eukan bizikletara; Areatza orduan bizikleta utsa zan eta sprinetan apostuak egiten ziran, eta iñoiz Begoña jausi, katalinea izterretik sartu eta iru aste inguruan, eta ama konturatu barik, gorriak ikusi ebazan, ibilli eziñik eta ogean sartu barik.

Umezain egoalarik, a ta bestea, dantzan eta aurrekugiñen ikusiaz ikasi eban berak be, bere lengusiña Bada Ajuria'rekin batera: nesken aurrekua egiten eban, baiña mutillen moduan. Gero, moja egon zanean, ilgo zan aurreko urtean, Santikurutz jaietan, ekin eutson aurrekuari.

Itziar aren bikiak ainbat kontu daukaz, gaztetakoak batez be. Eskola denporan, eskolako lanak egitea, bat ere ez eban gogoko. "Bera olgetan —diño Itziar'ek— eta

ni eskolakoak egiten. Urrengo egunean, arin, niri kopietan; eta bein, dibidendoa kopiatu eustan baiña dibisorra egitea aaztu ta... zelakoa artu eban. Petra andrea ona zan joten, eta jakiten eban Begoña'k artu bear ebazala; ez eutson ardura aundirik".

OKERKERIAK

Ona beste biurrikeri bat anai-arreben artean sarri jazoten dana. "Beste baten —idazten daust Itziar'ek—, Karmele egoan ezkontzeko eta etorri zan egun batzuk pasatzera. Karmel'ek, ogeratu orduko, oge azpia, eta osteak, dana begiraten eban, eta bein ogean gengozaleta etorri zan, begiratu eban dana eta bakar-gelara joan zan. Begoñak orduan, ogepean sartu zan, eta Karmele, etorri zanean, oge gaiñean jesarrita kaltzerdiak kentzeko asi zan; bata kentzeko, anka lurretik jaso ebanean, Begoñak, ogepetik, bestetik ebatu eutson eta Karmele'ren txilioak eta arrapaladak eskilarak beera, ez eukien azkenik. Ama ta danak, gora, zer gertatzen ete zan... eta non ikusten dodan Begoña ogepetik urteten".

Benetan alaia zala, goi-deiak eragiñik, moja joatea erabagi eban, eta joan orduko, Santikurutz jaietan, aurreku bat eskiñi eutson auzoko lagun bati, agur moduan eta beretzat; axe izan zan aren azkanengo aurrekua.

Ba-eukan senargaia, baiña bera emen itxita Zumarraga'ko Mertzede-komentura joan zan 1961'ko Martiaren 21'an.

Urte bi ta erdi egin ebazan an azi ta ezi; andik ondoren Santoña'ra, Militar Patronato'ra, militar semeen egoitzera. "La Roja" deitzen eutsen an. Zergaitik? Begoña'ri amak karta guztiak euskeraz idazten eutsozan eta euskeraz etozanez nagusiak ezin ulertu.

Zelako istilluak! Erderaz idazteko esanaz idatzi eutson amari, eta amak erantzun: "Ez ekiala berak erderarik eta euskeraz idatziko eutsozala ordurarteko moduan

karta guztiak". Au ikusirik, baimena emon eutsoen kartak euskeraz artzeko.

ERIoTZA

Santoña'tik Egea de los Caballeros'era; emen urte bi egon ondoren, Plazentzia'n iru bat illabete igarotakoan, 1969'an Eibar'era, Zaarren egoitzera emen emonik azkenengo amabi urteak.

1981'ko azaroaren 7'an il zan Astepe'n, Zornotza'n, amalau urtekin lan egin eban lantegiaren ondoan, auto-ixtripuz; berarekin baita il zan Sorkunde bere moja laguna, Dima'ko Indusikoa.

Itziar, Begoña'ren bikia, 1965'an Oar-Arteta'r Anaseguz ezkondu ta bere jaiotxean bizi da. Lau seme-alaba izan ditu, Josu Xaber, Jon Ander, Igor eta Mainer. Senarra ta seme bi (Josu Xaber eta Igor) il jakozan, oneik be ezbearrean.

Olerkari.—Lasterka doan urak gai asko daroaz zirimol, era berean giza-odolak be; besteak beste, bertsoarako trebetasuna zerbait beintzat odolean datorrena ezin daukegu uka. Enbeitarrak, gitxi-asko, danak ditugu bertsolari.

Moja joanda gero, Santoña'tik zoriondu nai izan izan eban bere aizta Bikia. Amazortziko nagusiak dira, "Santander"-tik titulupean "Zeruko Argia"-k argitaldu ebana. Bigarren estrofan bien bateo eguna dakar gogorra, au esanik:

Miren Itziar eta Begoña
zituezan aukeratu,
izen onekin elcizaldian
ginduezan bateatu.

Gero ikastolara, baiña ikasteko "pixkat alperrak". Diño. Loreillaren 22 aurkeratu eben lenengoz Jaunartzeko. Oso dotore jantzi ziran. Olerkariak onela:

Bilbo aldian egon leiteken
jostun onenak egiña,

gure aitamak dotore jazten
egin eben alegiña.

Ondoren, urteak irauliz, lekaime Zumarraga'ra; ango urteak eta Santoña'koak, alai ta langille igaroak. Gazte da, baiña giza-urteak bizkor doaz, eta Begoña onan gogorazten bere bikiari:

Eguzki argia illunduteko
eguna da etorriko
illargi eta izar ederrak
ez dira, Itziar, betiko.

1960'tik 1972'ra unez une diardu bertsoetan. Familiako eta ezagumai batez be zorionak emoten; ez da nekatzen orretan. Eibar'ko Zaarren jaietan arildu eban au:

Gorputz ta arima bat egiñikan
emen gara gaur aurkitzen,
gure Zaar danok merezi daben
jai eder oneek ospatzen.
Mundu ontako egunak laister
danontzat dira pasatzen;
onen ondoren, zer dago, Jauna?
sarritan dogu galdetzen.

Nola gazte izan, ala zartzaro,
nola bizitza ala il;

esaera zar onen barruan
gizon izakera dabil.
Azken urte ontan, maitasunean,
jokatu dezagun abil,
azken saritzat zeru ederra
guretzako izan dedin.

Era ontakoak ditu ainbat eta ainbat kopla eder, zer-nai gairi josiak, beti pozkor, beti bizi, moja bat goratuz, jai bat, urte-egun bat gaitzat artuz. Areatza goratzen dau, Zumarraga goratzen, Santoña ta Eibar goratzen. Eta orretan ekiola, guk nai baiño leen, Jaunak eroan euskun berera.

AITA ONAINDIA



SANTUAK

INIGO'REN LORATXOAK PARIS'KO MONTMARTRE'N JESUSEÑ LAGUÑDIA SORTU

1534. urteko dagonillak 15, Andra Mariaren jaia, aukeratu eben Iñigo'ren lagunak Zinitzak egiteko.

Egun orretan goizean goiz Iñigo eta bere sei lagunak Montmartre'ko menditxoan kokaturik dagoan Dionisio Deunaren eleizara ixil ixilean igon ziran, eta Pedro Fabre'k meza emonda —bera bakarrik zan abadea— jaunartzeko garaia etorri zanean, meza-emolleak gure Jauna eskuetan eukala, lagunai begira jarrita, banan-banan bakotxak, danak entzuteko moduan, bere zinitzak esan ebazan, eta gero gure Jauna artu eban. Azkenez, mezaemolleak berak be, bere zinitzak esan ebazan.

Meza amaituta, eskerrak emon ondoren, mendi-beko aldean egoan iturritxo baten ondoan artu eben gosaria; gosari arina: ogia eta ura, besterik ez.

Eta an bertan iturri ondoan emon eben egun osoa, alkarrizketa alaian, bakotxak Espiritu Santuak emondako biozkadak danen aurrean ustuz.

Eta zinitz oneik urrengo urte bietan barritu ebazan, Andra Mari egun berean, toki bardiñean, eta inguru antzekoan.

Baiña Iñigo osasun billa bere jaioterrira etorri zanez, ez zan jai eder areiten Paris'en bere lagunen artean egokitu.

IÑIGO BERE JAIOTERRIRA

Loiolatarrak berak esango deusku zergatik etorri zan Paris'tik Azpeitia'ra, bere jaioterrira.

"Paris'en garai onetan oso txarto aurkitzen nintzan urdailletik, eta amabostero urdailleko mina neukan, ordu bete irauten eustana, eta sukarra ekarten; eta bein urdailleko miñak 16 edo 17 ordu iraun eustan.

Eta garai onetan filosofia igarota, teologia urte ta erdi ikasi ondoren, lagunak irabazita neukazanean, nire geisotasuna aurrera joian, osabiderik ezin aurkituz, asko probatu baziran be.

Osagilleak esaten eben ez egoela osasunari laguntzeko beste biderik, jaioterriko aizeak baiño. Gaiñera nire lagunak aolku bera emoten eusten, eta biziki emon be.

Azkenean ni be laguneren etxira makurtu nintzan... Eta onetan bat etorri giñan: ni osasunez ondo aurkitu ondoren, Espainia'ko nire laguneren arazoak konpontzera joango nintzala, eta gero Benezia'ra abiatu, an nire lagunai itxaroteko.

INKISITOREAREN AURREAN BARRIRO

"Eta nire aberrirako bidean jartzeko nengoala, inkisitoreari salatu ninduela entzun neban. Au entzunik eta ez ninduela deitzen ikusiz, inkisitorearengana joan nintzan, eta entzundakoa esan neutsan, eta zelan nire lurraldera joateko asmotan nengoan, eta mesedez lenbailen epaia emoteko, eskatzen neutsala.

Inkisitoreak esan eban: egia zala salatu ninduela, baiña garrantzizko gauzarik egoanik ez ebala ikusten. Nire Gogo Jardunetako liburua ikusi gura ebala, besterik ez... Eta ikusi ondoren asko goratu eban, eta kopia bat berak egiteko baimena eskatu, eta ala egin eban.

Baiña nik, ala ta guztiz be, arren, auzia aurrera eroateko eskatu neutsan, epaia emon arte. Eta inkisitorea atxakiak ipinten asi zan ezkerro, ni notario eta testigekin aren etxera joan nintzan, eta dana agirian legetua ipiñi neban.

IÑIGO AZPEITIA'RA

Eta au eginda, lagunak erosi eusten zaldi txiki baten gaiñera igon, eta nire lurraldera joan nintzan, eta bidean askoz obeto aurkitu nintzan.

Eta Gipuzkoa'ra eldu nintzanean, betiko bidea itxi, eta mendiko bidea, bakartiagoa zana, artu neban. Eta bide zatitxo bat aurrera eginaz, armadun gizon bi aurkitu nebazan nire billa etozanak (Bide arek izen onik ez dauka iltzailleengatik), eta oneik, apur bat aurreratu ondoren, atzera itzuli ziran, arin arin niri jarraituz. Nik onegaz bildur apur bat artu neban. Baiña eurekin berbetan asita, nire anaiaren morroiak zirala jakin neban, nire billa aginduak. Bada, itxuraz, Baiona'n ezagutu ninduen, eta Loiola'n nire etorreraren barri jakin eben, eta areik aurretik joan ziran, eta nik lengo bidetik jarraitu neban. Eta, nire errira eldu baiño lentxoago, lengo

SANTUAK

gizonak aurkitu nebazan, eta ekin eta ekin, nire anaia-
ren etxera joateko alegindu arren, ezin izan ninduen
menperatu. Eta ala Azpeitia'ko sarreran dagoan Mada-
lenako ospitalera joan nintzan, eta urrengo egunean
atez ate limosna eskatzen asi nintzan".

Etorrera onen albiste geiago Loiola'ko Potentzia-
na'k, Iñigo'ren llobak, emoten deuskuz:

"Egibar baserriko Joan, Iñigo'ren umelaguna, Beo-
bia'ra joaten zan Azpeitia'ko errirako okela erostera.
Arantzakoan Iturriotz'ko bentan ostatuz gelditu zan.
Eta an egoala, ostatuko etxeoandreak esan eutsan,
zelan etxe aretan gizon bat egoan, egundo alangorik
ikusi ez ebana. Egibar'ko gizona, nor zan jakin miñez,
etxeoandregaz joan zan, eta atearen intzirrikatu bate-
tik begiraturaz, Iñigo ikusi eben belauko otoitzean.

Egibar'koak ezagutu eban, eta arin arinka Azpeitia-
'ra itzuli zan, Loiola'ko etxeoai ikusitakoaren barri
emotera. Loiolatarrak atzera itzuliko ete zan bildurrez,
ez ziran ara joan, baiña eleiz-gizon bat, Garagaltza'ko
Baldazar Jauna, bialdu eben Iturriotz'era. Jaun onek
Iñigo ikusi eban, eta beragaz ekarteko aleginak egin
ebazan, baina alperrik, eta Iñigo'k esan eutsan ez ba'zan
aurretik joaten, bera etorritako lekutik itzuli egingo zala.
Baldazar'ek bidean lagunduko eutsala, erantzun eutsan,
baiña Iñigo'k ez eban onegaz etorri gura izan, eta atzean
gelditu zan, be^stea joan arte.

IÑIGO'REN AZPEITIAN SARRERA

Iñigo'k Iturriotz'en Azpeitia'ko bide zuzena artu bea-
rrean, inguru andi bat eginaz, mendiz mendi, Aitzarna-
'rantz jo eban, bere jaioterrian ezkutuan sartu gurarik,
baiña bidean galdu egin zan, eta Errarizaga baserrian
emon eutsoen jaten, eta Lasao ondotik igaroz bariku
egun batean, arratsaldeko bostak inguruan, ixil ixilik,
iñor konturatu barik, erriko sarreran egoan Madalena-
'ko ospitalean ostatua eskatu eban".

Etorri, eta urrengo egunean Azpeitia'ko errian atez
ate limosna eskatzen asi zan, esaten deusku beste testi-
gu batek. Baiña Enparan kalean bizi zan Egibar'ko
Katalina'k —Loiola ondoko Egibar baserrian jaiok— berea-
la ezagutu eban, eta arin arinka Loiola'ko etxera joan

zan Martin Jaunari, Iñigo kalean limosna eskatzen iku-
si ebela, esatera.

Loiola'ko Nagusia, Madalena'ko geisoetxera etorri
zan, eta arren eta arren, bere anaia eskatu eutsan,
Loiola'ko etxera bizitera joateko, ez zalako ondo ikusia
Loiola'ko seme bat, ain pertsona gorena izanik, txiro-
-etxe batean bizitea. Baiña Iñigo'k erantzun eutsan: ez
zala bera etorri Loiola'ko etxea iñori eskatzera, ezta
jauregietan bizitera, Jaungoikoaren itza ereitera baiño,
eta jendeari zein gaiztakeria andia dan pekatua adieraztera.

IÑIGO'REN LANAK AZPEITIA'N

Zer egin eban Azpeitia'n Iñigo'k berak esango deus-
ku ondoen.

"Eta bizi nintzan txiro-etxera ni ikustera etorten
ziranakin Jaungoikoaren gauzataz berba egiten neban,
eta onen graziaz frutu andia egin zan.

Etorri baizen laster, umeai dotriña erakustea erabagi
neban; baiña nire anaia erabat lan onen aurka jarri zan,
inor ez zala etorriko, esanaz; baiña nik erantzun neu-
tsan: batekin naiko neukala... Baiña dotriña erakusten
asita, lagun asko etorten zan, baita nire anaia bera be.
Kristiñau ikasbidez gaiñera, baita domeka eta jaietan
berba egiten neban, arimen onura eta laguntzarako, eta
oso urrunetik etorten ziran niri entzutera".

Zer ete zan Iñigo'ren berbaldien gaia?

Testiguen autormenak alkartuta au jakin daikegu:

"Iñigo'ren abotsa mea zan, eta urrunera be garbi
entzuten zan. Bere berbak sarkorrek eta eraginkorrek
ziran, eta Jaungoikoa maitatzera eta gaiztakeriak gorro-
tatzera eragiten eben".

Jesus zerura igon zan Igokunde egunean esan eban,
urrengo egunean barikuan asita, Pentekoste jaira arte,
egun bakotxean Jaungoikoaren legeko agindu bat ager-
tuko ebala... Eta bigarrena eta seigarren eguna etorri
ziranean, alako gauzak esan ebazan birao eta aragike-
riaren pekatuen aurka, danak bildurturik itxi ebazan,
eta asko oker bidetik aldendu ziran, eta Azpeitia'ko
errian biotz barritze ezagunak egin ziran".

Iñaki Goikoetxea. S.J.

IZKUÑTZAK

JOSE MARIANO BARRENETXEA

Euskeraz badakizu? Euskeraz egizu
Euskeraz ez dakizu?
Euskeraz ikasi egizu,
Euskera guztiena da ta.

Vous parlez le Basque...
Utilisez le donc!
Vous ne savez pas le Basque
Apprenez le donc!
Le Basque est le bien de tous!

Can you speak Basque?
You can't?
Try to learn it,
because Basque language is everybody's and for
everybody.

¡Sabe Ud. Euskera? Háblelo
¡Que Ud. no lo sabe?
Intente aprenderlo,
puesto que el Euskera es cosa de todos.

EUSKERA ETXEAN ETA KANPOAN, LANTEGI, LANTOKI ETA LEKU GUZTIETAN

Euskalerriko izkuntza euskerea dan ezkeru eta guztiok Euskalerrikoak izanik —batzuk izatez eta beste batzuk bizi izatera etorri eta emengo bizilagun egin diralako—, euskereak guztion izkuntza izan bear dau.

Euskalerriko ta kanpoko batzuek, euskerea ezagutu ta jakin ezarren, antxiñatik eta gaur arte bere, euren eretxietan itz eta esaera garratzak eta gogorak erabili ditue euskerearen aurka.

Badira, euren marrokeri ta maltzurkerien bidez, euskerearen irakaskuntza ta zabalkuntza isilduazoten diarduenak.

Beste batzuek, euskerea ezagutu bagarik, euren burua euskerearen erabagilletzat biurtu eta euren gogoia ezarri naian diardue.

Orrelako pertsonakaitik euskera aienatu (desagertu) egingo leiteke, eta arerio orreik poztu be bai, naizta gero "damuak" egin.

Euskalerriko guztia "Alkarte" bat gara, naizta Iparralde ta Egoaldean euskereagaz prantsesa batean eta gas-terera bestean erabili. Baiña euskerearen ofizialtasunak ez dau asko balio izango, euskerea toki guztietan **oitu-raz** erabilten ezpada. Eta Euskalerriko izkuntzari obeni egin baño leen, eskubide guztiak erabili bear izan-go doguz, euskerea ezagutu, ikasi ta erabilteko.

Euskalerriko Erakunde, Bazkonde ta Lantegi guztiak, egitamu egokiak egin bear izango ditue euskerearen jabe egiteko, batez be euren lantoki guztietan euskerazko ikastaroak (klaseak) emonaz.

Euskerea guztiona dan ezkeru, arlo orretan errakuntzarik asko egiten da. Batzuk, euren negozioak dirala-ta —biotza euren etxalde edo ogasunetan daukelako—, euskerea zer dan eta zeren ordetza dan aitzuta, euren buruak ezjakin bere egiten dabez.

Badira Euskalerritik erbesteratutako batzuk, euskerari buruz arrotz diranak. Eretxi okerdunak bere badira. Baita Euskerea begi txarrez begiratzen dabenak bere. Orrela, guztiona dan euskereaganako maitasunari uko eta uts egiten dautsoe.

Euskerea ikasi ta erabili bearraren alde egitea, zegaitik eskatu eta lan egin bear dan, nai ta nai ezkoa da esatea; izan be, izkuntza preindoeuropeoa dalako bakarrik ez, Españako ta Prantziako eta Euskalerriko guztikoa dalako bere ez, ori dala —ta iñor baztartuta geratu ez daiten baño.

Izkuntza, ain zuzen bere, edozein erriren nortasun berezia danez, euskerea be Euskalerriko nortasun —ezau-garririk nagusiena da. Eta Euskalerriko, bere nortasuna agertzeko, bere izkuntza dan euskera gorde, zaindu ta sendotzeko jatorri-eskubide guztiak daukaz. Eta —entzuz-jokatu ezkeru beintzat—, nok ez dauz zaintzen munduan norbere eskubideak? Gorde dagigun geuk be, euskaldunok, geure eskubiderik nagusienetarikoa: EUSKERA.

**LE BASQUE A LA MAISON ET A L'EXTÉRIEUR,
DANS LES LIEUX DE TRAVAIL, PARTOUT**

L'Euskera est la langue des basques —les basques étant ceux qui habitent au Pays Basque, tant les natifs que ceux qui s'y sont implantés—et c'est pour cette raison que l'on demande qu'elle soit parlée par tous.

Il a été prouvé qu'aussi bien au Pays Basque qu'à l'extérieur, quelque ignorants de la langue utilisèrent autrefois et même maintenant des paroles dédaigneuses et humiliantes contre l'Euskera.

Il y a aussi des détracteurs qui s'affirmèrent, sans rien connaître à la question, contre cette langue, imposant leurs opinions. D'autres mettent tous les moyens en oeuvre pour passer sous silence l'enseignement et la propagation de la langue.

Il y a aussi ceux qui s'érigent en juges et qui veulent imposer leurs volontés sur ce qu'ils ne connaissent pas. Il est certain que pour les ennemis de la langue basque sa disparition serait un triomphe bien que plus tard ils le regretteraient.

Le Pays Basque forme une SOCIÉTÉ unique que l'Euskera réunit malgré les cultures différentes du Nord et du Sud.

Il n'est pas suffisant de décréter (l'Euskera "langue officielle", il faut pratiquer, car c'est la seule façon d'éviter de tuer la langue du Peuple Basque.

En partant du principe que c'est la langue de tous, tous les basques ont le droit et l'obligation d'en avoir connaissance en l'apprenant et en l'utilisant.

Toutes les institutions, entreprises, doivent contribuer au développement culturel en prévoyant l'enseignement de l'Euskera dans chaque lieu de travail.

Bien que l'Euskera soit la langue de tous les basques, quelques personnes l'oublient; quelques-uns dans leurs affaires —car le coeur du riche est tout à sa fortune— oublient et veulent ignorer ce que cet idiome représente.

Il y a des basques qui vont ailleurs et se considèrent exclus du "parler basque"; ceux qui ont des préjugés; d'autres qui se sentent "épiés". Tout ce que cela démontre c'est le manque d'amour avec tout ce que cela implique.

Pourquoi demandons-nous l'apprentissage, l'utilisation et la défense de l'Euskera? Ce n'est pas seulement parce que c'est une langue pré-indoeuropéenne ni la première langue d'Espagne, de France, du Pays Basque, mais pour que personne ne se sente marginal en l'utilisant. Et parce que les langues sont l'identité des peuples, l'Euskera est le plus grand signe de l'identité du Peuple Basque.

Le peuple ayant les moyens à sa portée, pourquoi ne garderait-il pas, ne soignerait-il pas et ne consoliderait-il pas sa langue? Si l'on a un peu de sens commun qui, n'importe où dans le monde, n'essaierait pas de maintenir ses droits et ses acquis?

Pareillement gardons l'Euskera car c'est une des plus grandes preuves de notre identité.

IZKUNTZA

BASQUE LANGUAGE INSIDE AND OUTSIDE THE HOUSE, IN EVERY JOB, EVERYWHERE

Basque is the Basque people's language and everybody living in the Basque Country is Basque. That is why Basque is wanted as a language for everybody.

It's been proved that people from the Basque Country and from outside have been talking against Basque language. Some of them didn't even know the language.

Others being malicious, keep silent about teaching and fomenting this subject.

There are some people as well, that making themselves judges want to impose something they ignore. It is clear that for the enemies of Basque language it would be a triumph if the language disappeared. The whole Basque Country is a single "society". However the North and the South of the Basque Country have two different cultures in relation to Basque language. In the North with the French language and in the South with Spanish.

It is not enough to give to Basque language the character of an official language. We must practise it, so we must speak in Basque, because this is the only way to avoid the crime against the language of the Basque Country.

Moreover the language is for everybody. All Basque people have the right and the obligation of knowing, learning and speaking Basque language. Every

institution, every company should create some plans for the Basque cultural development; teaching Basque everywhere.

Basque even being everybody's language in the Basque Country is sometimes forgotten. Some people forget how important it is; because they forget and don't care about the meaning and importance of the language.

There are some Basque people who live outside the Basque Country and this makes them not understand Basque culture, even some people living in the Basque Country can't understand it, but the real cause for this is the absence of love for the Basque.

Why do we want to use and learn Basque language and why do we demand and defend Basque language? It is not only because it is a "preindoeuropean language or the first language of Spain, France and Basque Country but because being the languages the identity of the countries, Basque language is one of the highest proofs of identity of the Basque country.

And having this country the ways, why not keeping, looking after and strengthening its language? Who, anywhere in the world doesn't look after its rights and faculties? In the same way we must keep our rights with the Basque because that is one of our biggest proofs of identity.

EL EUSKERA EN CASA Y FUERA, EN TODOS LOS
PUESTOS DE TRABAJO, EN TODOS LOS LUGARES

Por ser el euskera la lengua de los vascos y al ser vascos todos los que viven en el País Vasco, unos de hecho y otros porque viniendo a vivir así se comportan en su estancia o estadia, es por lo que se pide el euskera como lengua para todos.

Se ha comprobado que tanto desde todo el País Vasco y también desde fuera, algunos ignorando la lengua vasca, usaron antes y ahora palabras y frases desdeñosas y humillantes contra el euskera.

También hay que convertirlos en detractores dogmatizaron contra la lengua del Pueblo Vasco, emitiendo sus opiniones sin conocimiento de causa sobre una materia que desconocen. Otros, con sus medios, aun con su colaboración y con toda malicia, silencian la puesta en practica de la enseñanza y fomento de esta materia.

Hay también que erigidos en jueces quieren imponer unas voluntades sobre lo que desconocen. Claro que para los enemigos de la lengua vasca la desaparición de ésta sería triunfal, aunque luego *la llorasen*.

Todo el País Vasco somos una única *‘Sociedad’*, aunque tanto en Iparralde como en Egoalde, relacionadas con el euskera, se dan dos culturas diferenciadoras, bien con el francés, bien con el castellano.

Y no es suficiente con que al euskera se le conceda el carácter de lengua oficial, sino que además hay que usarla en la *práctica*, porque es la única manera de evitar el crimen contra la lengua del Pueblo Vasco.

Y puesto que además la lengua es de todos, a todo el País Vasco le asiste el derecho y la obligación de

llegar al conocimiento, aprendizaje y utilización del euskera.

Todo Institución, toda Entidad, toda Empresa, debe crear unos planes y unas infraestructuras para el desarrollo cultural euskérico, impartiendo la enseñanza y dando clases en todos los lugares de trabajo.

Aun siendo el euskera la lengua de todos los del País Vasco, en cuanto a las personas se falla bastante. A algunos en sus negocios —porque el corazón del rico está en su hacienda—, olvidan y quieren ignorar lo que este idioma representa.

Vascos hay que por sus traslados se consideran extraños a la lengua vasca. Hay quienes tienen prejuicios. Otros sienten ojeriza. Lo que con todo ese vacío y vejación se demuestra es la falta de amor, con lo que de hecho a todos corresponde.

Por que se pide el uso y aprendizaje y por que se exige y defiende el euskera. Pues no es solamente porque sea la lengua preindoeuropea ni la primera lengua de España, de Francia y del Pueblo Vasco; sino que más bien para que nadie se sienta marginado. Y porque siendo las lenguas las señas de identidad de los pueblos, el euskera es una de las señas de mayor identidad del Pueblo Vasco.

Y teniendo este pueblo los medios a su alcance ¿por que no va a guardar, cuidar y fortalecer su lengua? Si por lo menos se actúa con un poco de sentido común, ¿quien no cuida en cualquier lugar del mundo sus derechos y sus facultades? Por lo mismo, guardémoslas con el euskera porque esa es una de nuestras mayores señas de identidad.



ERBESTEA

ALEMAÑDAR BAT BERMEO'N

ZELAN BERMEO'RA

Zelan eldu ete zan Bermeo'ra Klaus Soth Alemandarra?

Gitxik ezagutzen dabe Klaus. Ogei ta amazortzi urteko gizon sendoa da, arotza, eta Bermeo'n egiten dau lan geienetan, beste batzutan Bilbo'n eta Markiña'n be bai.

Markiña'koa da bere emaztea, Lourdes.

Klaus Soth-man gure girora osoan sartu da eta euskalzale ornidua da.

Gaurko bere guraria da, benetan gurari ederra, euskerea ikastea eta asi be egin da, berak diñoan lez, Euzkadin biziteko garrantzi ta ardura aundiko gauzea dalako.

Klaus gizon on bat da, ona ta baketsua, edozein giza-taldetan lagun lez sartzeko modukoa eta bere nortasun adikor, agiri eta zabalagaitik, adiskidetasuna lortzen dau eta Euskalerrian biziteak oso-osoan lilluratzen dau. "Euskalerria, Bizkaia, neure aberria da" esaten dau.

IBILLALDIAK

Esan dogun lez, Alemandarra da, Beeko Sajonia'n dan Oldenburg errikoa, Bremen'etik urrean.

Oldenburg 130.000 biztanle inguruko erria da eta lugin eta aberedunen giroko azoka ederrak egiten dira erri aretan. Sale-rosketarako ospetsuena Frisonarren endako beiak izaten dira.

"Orain zortzi urte dirala, San Vicente de la Barquera'n oporraldi baten nengoala Lourdes nire emaztea ezagutu neban. Gero urte bi igaro ondoren, Markiña'n eta Oldenburg'en alkar ikusten genduan eta Markiña'n ezkondu giñan 81n. urteko dagonillean. Gero Alemania'n igaro genduzan urte bi eta bein betiko Bilbo'ra etorri giñan eta emen alemea eta ingles ikastaldiak emoten nebazan".

ONTZIGINTZAN

Baiña Klaus'ek bere ikasirik bizenak goleta esaten jaken itxas-ontzietan daukaz. "Nik arotz-lanean egiten neban bear aste-azkenetan, bost illebeteen munduari bira emoteko asmoz.

Azkenean asmoak ez euskun ondo urten eta ontzi-lana itzita, gaur Bermeo'n daukadazan lagunak ezagutu nebazan eta 85n. urtean asi nintzat lanean Bermeo'n ontziak konpontzen".

Ez ete eban izango Euskalerrian biziera barri orretarako eragozpenik?

Egia esateko, ez eukan asmakizun-arloan arazo aundirik, betirako bertokotu baiño lenago egotaldi batzuk egin ebazan eta orain guztiz pozik bizi da.

EUSKERIA

"Emen Alemania'n baiño geiago ibiltzen naz —diño— ango bizitzea ez da bardiña.

Euskerea ikasteko gogoa be ba-daukat, orain dakidana oso gitxi da-ta, berba batzuk ulertzen dodaz eta edatetxe edo jatetxeetan zerbait eskatu neike. Guztiz ardurazko gauzea da nitzat euskerea ikastea, izkuntza eder au parra-parra egiten jakitea, euskerea egiten dan errian bizi nazalako. Orregaitik ikastegi batera sartzeko asmoetan nabil".

ZEZENAK

Iruña'ko San Fermiñak jakoz atsegin. Urtero artzen dau egun orretan bere zama-berebil txikia eta gogotsu joaten da Iruña'ra. "Aurten, ain zuzen, Bermeo'ko mutil batzuk lagun dauzala joan naz eta eurakaz atsegiñez igaro dodaz 89'ko San Fermiñak. "Lezenen aurretik ez da joan, ori arriskutsua dala uste daualako baiña zezen-plazara bai joan da zezenketa ikustera.

"Barrero diñot, Euzkadi'ko Jaunerria dan Bizkai onetan, pozik bizi naz. Ondo jaten dot eta emengo janariak atsegin jataz: indaba gorriak, urdai-zati aundiak ta lukainkakaz gertatuta, atun egaluzea, bisigua, lebatza ta makallau-saltsa".

Gure Bizkaia, Jaunerri eder eta aberatsa, Naparroa lez, Suiza'ko kantoien antzera alkartuta egon bear da, ez orain dagozan lez, (Gipuzkoa ta Araba'gaz buztarturik. Errez al dogun aurrerapenik, ezin dogu egin, lortu. Au bai ba-dala tamala!

LETONA'k



ARTZAIN-TXAKURREN LEIAKETEAK

IKUSGARRIA

Niretzak artzain-txakurren leiaketea Euskalerrian dan jolasik politena ta ikusgarriena da.

Muntxaras Abadiño'ko baserrira joan nintzan 10'ean, artzain txakurcen trebetasuna erakusteko eratu eben agerpenera, joko ori ikusteko gogo bizia nebala.

Goizeko amaiketan egualdi lainotsu ta lanbroz zematua geunkan. Ez bero eta ez otz, eguzki gitxi, baiña giro ederra.

Eta jentetza aundia batu giñan, baserri-giroko jolasetan sarritan ikusten dan baiño aundiagoa. Bi milla lagun edo geiago bear ba'da eta guztiak berbatsu ta pozik.

TXAKURREN TREBETASUNA

Leiaketa oneik, jakiña, artzain-txakurren eta euren jabe diran artzainen trebetasuna agertzeko izaten dira eta amairugarren aldiz eraten dau onako leiaketea Gerediaga Alkartek.

Euzkadi'ko alde guztietatik bederatzitxakur etorri ziran, ardiak zaintzeko laguntza lanean txapelduna zein izango zan agertzeko gurariaz.

Naparroa'ko Baztan'darra dan Patxi Etxebarria'ren Lagun txakurra izan zan txapeldun.

Lagun txakur au, Patxi bere ugazabagaz, bost urtetan dabil eta Naparroa'ko Artzain-Txakurren artean txapelduna da.

Patxi pozik egoan bere txakurak egin eban lana zala-ta, berak agertu euskun lez.

ZEREGIÑA

Txakurrai zeregin gaitzak ezarri jakezan, baiña Lagun olako zereginetara oituta egoan, orregaitik errez beraganatu eban saria. Egunero ibiltan da irureun ardi dauzan artaldea arduraz zaintzen. "Ori da eta izango da bere ekiñaldia".

SARIAK

Izan ziran beste sari batzuk be: Bigarrena ta irugarrena Lista'k eta Perla'k irabazi ebezan. Bigarrena 190 puntugaz, lenengoak baiño 40 gitxiago eta irugarrena 123 puntugaz.

Laugarren maillan Nabarro txakurra izan zan irabazle, Osiñaldeko Gipuzkoarrarena, 118 puntugaz...

Onen ostean, Argi izenekoa Antonio Alustiza naparrarena eta gero Pintxe, Bizkor, eta Montxo, bizkaiatarrak eta gipuzkoarrak.

Azkenez, Plentzia'ko txakur bi geiago agertuko zirala esan eben, baiña ez ziran agertu.

AZTERGAIK

Txapelketa onek, oiturazkoak diran iru aztergai izan eban, trebetasuna ta esaneko izatea erakusteko: Bide ikurriñez marratua egin, artaldea erabilli, artaldeari ezi bi igaro eragin eta ardi guztiak ardi-tokira sartu eta andik atera.

Dana dala, euren lana izan eben artzainak, euren makillak eskuetan dabezela, elburu orreik beteteko.

JOLAS ARRIGARRIA


Ekoloji-giroan aurrera egiten dauan jolas polit onek, zale-tasunak eraginda ikusle diranai, urtero agertzen dautse mendi, baserri eta zelaietan bere edertasuna.

Azterketea aurrera doan bitartean, gizataldeak txakurren ulermen biziaz arrituta ikusten dira.

Egun aretan nire ondoan gizon Txina'tar bat egoan ikusgarri onegaz pozez beterik bere begiak be zirri-zarratuz erabiltzala.

Ba-daukaguz Euskalerrian gauza ikusgarriak eta pozgarriak ugari.

LETONA'k



Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA